

# aLEKA

TOLOSAKO UDAL ALDIZKARIA | 2022ko azaroa

04-05

**GUNE BERRIA TOLOSARREN ESKURA**

*Un nuevo espacio para la ciudadanía*

06-07

**PARKEAREN EZAUGARRIAK**

*Características del parque*

10-13

**AZKEN BERRIAK**

*Actualidad tolosarra*

15

**AGENDA**

*¿Qué quieres hacer?*



## ZUMARDITXIKIA

*Tolosa eta tolosarrentzat  
berreskuratzen*





# ZUMARDITXIKIA BERRESKURATZEKO PROIEKTUA

**Z**umarditxikiko proiektua 2019-2023 Legealdi Planean jasotako proiektu estrategikoa da, udal gobernuak aurreko legealdian abiatu zuena, espazioa Tolosa zein tolosarrentzat berreskuratzeko helburuarekin. Irisgarritasun, mugikortasun eta ingurumen irizpideak eta herriaren eta herritarren egungo beharrak kontuan izanik landu du Udalak Zumarditxikiko gunea eraberritzeko proiektua.

Adostasun zabala dago espazio hau berreskuratzeko behararen inguruan. Tolosarrekin zehaztu ziren aurreko legealdian eremu honek bete beharreko baldintzak eta helburuak. Hortik abiatuta landu dira aurreproiektu eta proiektua. Bi parte hartze prozesu eta hainbat saio, tolosarren iritzi eta ekarpenak jasotzeko, guztiak kontuan izanda proiekturik egokiena mahai gainean jartzeko.

Helburua bakarra: Zumarditxikia berreskuratu eta tolosarren eskura jartzea, eremuaren eguneroko erabilera sustatzeko, etorkizunean, tolosarrentzat erreferentziatzeko gune eta topaleku bilakatu dadin Zumarditxikia.

El proyecto de Zumarditxikia, recogido en el Plan de Legislatura 2019-2023, busca regenerar un espacio emblemático, a día de hoy totalmente degradado, para ponerlo a disposición de las y los tolosarras. El Ayuntamiento lleva 2 legislaturas trabajando y dando pasos para recuperar dicho espacio en colaboración con las y los tolosarras. Se han llevado a cabo múltiples sesiones participativas abiertas a la ciudadanía y este año se ha definido el proyecto teniendo en cuenta la opinión de la ciudadanía, así como aspectos medioambientales, criterios de accesibilidad y movilidad. Objetivo: crear un espacio del que puedan disfrutar todas y todos, durante 365 días al año.

## AURREKARIAK

### Antecedentes



**T**olosako Udalak urteak daramatza, 2 legealdi zehazki, Zumarditxikiko espazioak garai batean zuen erabilera soziala berreskuratzeko lanean, betiere egungo beharretara, irizpideetara eta erabileretara egokitzuz, Tolosa zein tolosar guztiontzat atsegina, erabilgarria eta irisgarria izango den espazio publiko inklusiboa sortzeko; herriari erabateko onura ekarriko dion proiektua lantzeko.

Onuradun nagusiak tolosarrak direla jakinik eta espazioak tolosarrentzat duen garrantzia ezagututa, herritarrak bidelagun izanda landu da proiektua, tolosarren iritziak kontuan hartuz eta haien proposamen eta iradokizunak jasoz.

**Proiektua tolosarrekin elkarlanean garatu da zenbait partaidetza prozesuren bidez**

El Ayuntamiento lleva 2 legislaturas trabajando el proyecto de Zumarditxikia. En la pasada legislatura se establecieron los objetivos y criterios que debía cumplir el espacio:

- Que fuera un espacio referencial, inclusivo y accesible, que permitiera diferentes usos.

- Que fuese un parque con un paseo junto al río, que mejorara la movilidad peatonal y ciclista y la relación ciudadanía-río, estudiando la posibilidad de bajar al río.

En base a esos criterios se han elaborado el anteproyecto y el proyecto, los cuales han sido compartidos y contrastados con la ciudadanía, con el objetivo de poner sobre la mesa el mejor proyecto posible.



### Zumarditxikiko proiektuaren garapena

#### Desarrollo del proyecto de Zumarditxikia

- 2018. Gunearen lehen azterketa eta aurreproiektuaren lanketa.
- 2018. Emaizak tolosarrekin partekatu ziren Tolosarren prozesuaren baitan eta herritarrek adierazi zuten espazioaren erabilera egungo beharretara egokitu behar dela: kontzertuetarako, paseatzeko, atsedean hartzeko eta irakurtzeko. Eta ibaira jaisteko aukera aztertu eta hobetsi zuten.
- 2021eko maiatza. Proiektuaren idazketa martxan.
- 2021eko uztaila. Proiektuaren lehen zirriborroa herritarrekin partekatu eta ekarpenak jasotzeko saio irekia.
- 2021eko iraila. Proiektua herritarrekin elkarbanatzeko eta lantzeko 2. saioa.
- 2022ko uztaila. Behin-behineko proiektuaren aurkezpena udaletxean.
- 2022ko azaroa. Behin betiko proiektuaren aurkezpena herritarrei.



## HELBURUA: EREMUAREN ERABILERA SOZIALA BERRESKURATZEA

e

remuak garai batean zuen erabilera soziala berreskuratzea eta gunea herritarren eskura jartzea da Zumarditxikia eraberritzeko proiektuaren helburu nagusia, tolosar guztientzat aproposa izango den eta askotariko erabilerak ahalbideratuko dituen espazio publiko inklusiboa sortzeko.

Aisialdiari eta ibaiari lotutako parke sozial eta ludikoa zen Zumarditxikia XIX. mende hasieran. Bertan elkartzen ziren tolosarrak Euskal Jaiak ospatzeko, dantzaldiak eta azokak egiteko, San Joanak ospatzeko, etab. 70eko hamarkadan galdu zuen izaera eta erabilera sozial



hori aparkaleku erabilera eman zitzaionean. Zoritxarrez, ordutik hona, erabilera soziala galtzeaz gain, eremua degradatu egin da eta jatorrizko landaredia ere galdu da.

Landu den proiektuarekin, espazioa berreskuratu nahi da, baita ibaiarekiko lotura ere, haren erabilera gizartearen errealitatera egokituz, Zumarditxikia gure kulturaren eta egungo ohituren zabalkunderako erreferentziatzeko espazio bihurtzeko. Horretarako, ezinbestekoa da gunearen eraberritze integral bat egitea, guztiontzat inklusiboa, segurua, irisgarria eta irekia izango den gunea sortzeko.

En 1970 Zumarditxikia pierde su carácter y uso social con la modificación del uso del espacio como aparcamiento. Con el paso del tiempo, el espacio se ha degradado y ha perdido gran parte del arbolado original. Ello hace necesario actuar en el espacio para que cobre vida, adaptando su uso a la realidad social y cultura actual.

Un proyecto para la creación de un parque social y lúdico, vinculado al río que permita recuperar el carácter social que tenía Zumarditxikia en 1970.



T

olosako erdigunean kokatutako erreferentziatzeko gunea izango da Zumarditxikia, parke erabilera izango duena. Aisialdirako, egoteko eta atsedenerako espazioak izango ditu, ekintza ugari antolatzeko aukera ere eskainiko du eta tolosarrek naturarekin eta Oria ibaiarekin duten harremana sustatuko du.

Eraberritzeak 7.000 metro karratuko eremua hartuko du, Zumarditxikiaz gain, Santa Klara kalea eta hegoaldeko zein iparraldeko bidegurutzak berrituko direlako.

## IBAIAREKIKO LOTURA INDARTUKO DUEN GUNEA IRISGARRI ETA SOZIALA



### Características generales del parque

- Se recuperará un espacio emblemático mediante un proyecto que subraye el valor intrínseco del lugar.
- Será un lugar referencial con zonas verdes, de estancia, en el centro del municipio, un espacio natural, inclusivo y accesible que promueva la relación de la ciudadanía con la naturaleza y sobre todo el río, para poner en valor el río Oria e integrar este espacio en la actividad diaria del municipio.
- El proyecto incluye la perspectiva de género, para que sea un espacio seguro que promueva la igualdad de oportunidades y derechos de mujeres y hombres. Un espacio inclusivo.
- La nueva configuración genera un espacio accesible y multiusos para el uso diario de todas y todos los tolosarras. En definitiva, un espacio más diverso y rico.
- Un espacio que, aunque tendrá un aspecto más moderno que el Zumarditxikia del siglo XIX, mantiene y respeta su esencia y vocación adaptándolo al siglo XXI.



## PARKEAK IZANGO DITUEN ASKOTARIKO EREMUAK

### Diferentes zonas del parque



**P**arkearen eremu nagusiak:

- Ibaira begira dagoen terraza eta gunea sortuko da, beheko aldean, ibaira jaisteko aukerarekin.
- Paseatzeko oinezko ibilbidea sortuko da, parkea zeharkatuko duena, oinezko ardatza indartzeko.
- Egoteko eta jarduerak antolatzeko eremuak egongo dira: azoka berezietarako, kontzertuetarako, kale antzerki edo kale ikuskizunetarako.
- Kota desberdintasunari aurre egiteko harmailak eta lorategiak sortuko dira; harmailak ikuskizunetarako erabili ahal izango dira.
- Berdegune eta lorategiak izango ditu parkeak, zuhaitzi eta itzalguneak ere bai eta ibaiari lotutako bioaniztasuna zaintzeko landaredi berezia jarriko da.
- Azpiegiturak: bidegorri berria, komuna, bizikleta aparkalekuak, eserlekuak eta kontsumo baxuko zenbait argiztapen mota erabiliko dira.



El parque de Zumarditxikia se dividirá en dos zonas principales: zona sur y zona norte. La zona sur "ZELAIA" será un espacio polivalente de estancia y organización de actividades: conciertos, actividades ligadas a las ferias especiales... asimismo, contará con un espacio verde con zona arbolada y dispondrá de gradas como lugar de estancia, pudiéndose utilizar el graderío para espectáculos.

La zona norte "ERREKA" contará con un itinerario peatonal con pavimentación que permita la accesibilidad universal. La diferencia de cotas se salvará mediante gradas y taludes, combinando zonas de estancia y zonas ajardinadas.



El proyecto de reordenación de Zumarditxikia ha sido revisado por la Asociación Hispania Nostra de Madrid, cuyo Comité Científico ha constatado la idoneidad del proyecto, ya que es respetuoso con el patrimonio histórico y se ajusta a lo que debería ser una alameda en una zona inundable del siglo XXI.



## Diseño respetuoso con el medioambiente y alineado con el Plan de Movilidad



Proiektua lantzean garrantzi handia eman zaio historikoki eremuak izan duen erabilerari, baita ingurumenari eta mugikortasunari ere.

Santa Klara kaleko espazioak garrantzia hartuko du, espaloiak zabalduko dira eta bidegorria kokatuko da bertan. Parkean, berriz, oinezkoentzako pasealeku irisgarria sortuko da eta parkean bertan bide alternatiboak ere izango dira.

Partaidetza prozesuan zehaztu zen parkearen bi muturrak proiektuan integratzeko beharra. Horregatik, Dama Berdeko eremua ere hobetuko da eta Naparzubitik parkerako sarbidea ere bai. Eta eremu horretan, autobus geltoki berria ere aurrekusi da, parte hartze prozesuan herritarrek eskatuta.

Landarediari dagokionez, azterketa

sakona egin da. Egungo zuhaitzak aztertu dira eta haien egoera ere bai. Oro har, guztiak daude egoera txarrean, zenbait arrazoi medio, eta segurtasun irizpideak direla eta, soilik 5 mantendu ahal izango liriateke.

Santa Klara kaleko irisgarritasuna hobetzeko, ezinbestean kendu behar dira zuhaitz batzuk, eta obra hastean aztertu da zein zuhaitz mantendu daitekeen. Udalaren borondate eta asmoa da, ahal diren guztiak mantentzea.

Zuhaitzak berritzeko proposamena ere jaso da proiektuan eta ingurumen aldetik ibaiertz baterako egokia den landaredia aurrekusi da.

Zuhaitzak, zuhaixkak eta landareak jarriko dira, espazioan sakabanatuagoak, zuhaitzen hazkundera bermatzeko.

Actualmente la vegetación del Zumarditxikia está compuesta por 69 árboles; el estado general del arbolado es malo debido a los cambios de cota de pavimentos, a la propia pavimentación actual y al espacio requerido del que no disponen los árboles para su desarrollo. Todo ello ha generado problemas en las raíces y en las estructuras y estabilidad de los árboles. El estudio realizado concluye que sólo se podrían mantener 5 árboles de los actualmente existentes para garantizar la seguridad del espacio. Una vez comiencen los trabajos se analizará si se pueden mantener o no los árboles. El Ayuntamiento trabajará por mantener el mayor número posible de ellos.

El parque contará con árboles, arbustos y plantas acordes al ecosistema fluvial para preservar la biodiversidad, garantizar el crecimiento de los árboles y mantener la visión de alameda del espacio.



## APARKALEKUEN ALTERNATIBA



Tolosako Udalak herriko aparkalekuaren eta bereziki Zumarditxikiko eta lurrazpiko aparkalekuaren erabileren inguruko azterketa sakona egin du Leber enpresaren laguntzarekin. Azterketa horren baitan, Zumarditxikira sartu edo bertatik irteten den kotxe bakoitza eta horien egonaldiak aztertu dira eta bertan aparkatzen diren ibilgailuen gehiengo (ia % 80) Alde Zaharrean bizi diren pertsonenak direla ondorioztatu da. Emaitza horiek oinarri hartuta landu du Udalak Zumarditxiko aparkalekuaren alternatiba eta Alde Zaharreko bizilagunei aurkeztu die lehenik.

Zumarditxikiko 100 aparkalekuak Alondegi eta Lapurdiko aparkalekuetan jarriko

ditu Udalak Alde Zaharreko bizilagunentzat erabilgarri (Alde Zaharra, Euskal Herria plaza eta Santa Klara kalearen inguruetako bizilagunak). Bizilagunek gaueko bonoaren modalitatea (55 €) edo egun osokoa (115 €) aukeratu ahal izango dute. Tolosako Udalak kostu horren % 50 ordaintzeko dirulaguntza emango die Alde Zaharreko bizilagunei, hau da, hileko kostuaren erdia ordainduko du. Momentu honetan, Udala, dirulaguntza emateko ordenantza garatzen ari da.

Bizilagunek aukera dute proposamenak egiteko: UDATE herritarren arreta bulegoan edota [hirigintza@tolosa.eus](mailto:hirigintza@tolosa.eus) posta elektronikoa.

El Ayuntamiento de Tolosa ha realizado un exhaustivo estudio sobre el aparcamiento en Tolosa y ha concluido que la mayoría de los vehículos estacionados en Zumarditxikia (casi el 80%) pertenecen a personas residentes en la Parte Vieja. Así, el Ayuntamiento pondrá a disposición de las y los vecinos de la Parte Vieja 100 plazas de aparcamiento en los aparcamientos subterráneos de Lapurdi y Alhóndiga. Las y los vecinos tendrán a su disposición varios bonos: nocturno y de todo el día, el Ayuntamiento les abonará mensualmente la mitad del importe de dicho bono.

### Ekarpenak egiteko aukera

Aparkaleku alternatibaren eta egindako azterketaren inguruko informazio osoa webgunean eskuragarri dago, eta herritarrek ekarpenak egiteko aukera dute.

Toda la información sobre la alternativa de aparcamiento y sobre el estudio de aparcamiento realizado está a disposición de la ciudadanía en la web. Las y los vecinos pueden hacer sus aportación.



INFO GEHIAGO



# AZKEN BERRIAK

Actualidad

## GIZARTE ZERBITZUAK INDARTZEKO URRATSAK EGITEN ARI DA TOLOSAKO UDALA

### Abegi Etxean ematen den arreta zerbitzua zabaltzeko eta hobetzeko lanak abiatuta

ABEGI, etxerik gabeko pertsonen arreta zerbitzuak 30 urte baino gehiagoko ibilbidea du Tolosan eta zerbitzua boluntario talde baten eskutik eskaintzen da, Tolosako Udalak diruz lagunduta. Legealdi Planean jasotako proiektu estrategikoa da Abegi etxean bazterkeria egoeran dauden pertsonen gaueko eta eguneko arretarako zerbitzu integrala eskaintzea, gizarte kohesiorako eremuak sortuz, arreta emateaz gain, gizarteratzeko prozesuak ahalbidertzeko.

Horretarako, Abegi Etxea eraberritzeko eta egokitzeko obrak hasi ditu Tolosako Udalak. Lokala erabat eraberrituko da gaueko eta eguneko zerbitzua eskaintzeko eta eremua irisgarriagoa eta egokiagoa egiteko. Lanek irauten duten bitartean Sakramentinoetan eskainiko da bazterkeria egoeran dauden pertsonen zuzendutako gaueko arreta zerbitzua.

El nuevo servicio público de atención diurna y nocturna en Abegi es un proyecto estratégico que busca seguir reforzando los servicios sociales. Ya han comenzado las obras para reformar el local íntegramente. Mientras, el servicio de atención nocturna para personas en situación de exclusión se ofrecerá en los Sacramentinos.

### Bazterkeria edo babesgabetasun arriskuan dauden adingabeak eta familiak babesteko zerbitzu integral berritua martxan

Orain arte, Udalak babesgabetasun edo arrisku egoeran dauden pertsonen, adingabe zein familiei zuzendutako hiru esku-hartze programa eskaintzen zituen. Orain, arlo sozioedukativo eta

psikosoziala ardatz duen zerbitzua osatu du Udalak, zerbitzu horiek bateratuz eta egokituz, gizarte zein hezkuntza arloko esku-hartzeak zerbitzu baten pean kokatzeko zerbitzu integral, osatuago eta eraginkorragoa eskaintzeko. Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailaren ikuskapen eta gidaritzapean, harreman prestazio indibidualak, familiakoak edo taldekoak ematen dira, arlo sozioedukativo eta psikosozialean laguntzeko.

El Ayuntamiento ha renovado el servicio integral de protección a menores y familias en situación de riesgo de exclusión, dependencia y/o desprotección. A través del departamento de Servicios Sociales se prestan prestaciones de relación individual, familiar o grupal para el apoyo en el ámbito socioeducativo y/o psicossocial.



## ANDRAGORA TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEAK BADU BERARIAZKO IRUDIA

Emakumeen Etxea diseinatzeko prozesu partehartzailea amaituta, martxa onean doaz gunea eraikitzeko lanak eta dagoneko etxeak badu berariazko irudia ere.

ANDRAGORA Emakumeen Etxearen iruditeria lehiaketa bidez aukeratua izan da. Aurkeztutako lan guztien artean Oihana Pelaezek aurkeztutakoa izan da ANDRAGORA Emakumeen Etxeko irudi gisa hautatu dena. Aukeraketa bost emakumez osaturiko epaimahai bitartez egin da eta indarra, originaltasuna eta kalitatea izan dira Pelaezen lana aukeratzeko arrazoi, oinarri eta ardatz nagusiak.

bilera gelak, bulegoak... Espazioa erakarriagoa egiteko, kanpoaldeko itxura ere eraberrituko da eta bateratasuna emango zaie, material berdinak erabilita, bi lokalei zein kanpoko plazari.

Lanak faseka egingo dira eta, aurreikuspenen arabera, guztiak otsailerako amaituta egongo dira. Obrak 597.709,22 euroko aurrekontuarekin esleitu dira (BEZa barne). Aldi berean, altzarien horniketari dagokion esleipena abiatu du Udalak 85.000 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne).

La Casa de las Mujeres de Tolosaldea, ANDRAGORA, ya tiene imagen propia. La propuesta presentada por Oihana Peláez ha sido la escogida por un jurado compuesto de 5 mujeres como imagen propia de ANDRAGORA, por su calidad, su originalidad y, especialmente, por la fuerza que transmite.

### 2023ko lehen hiruhilekorako ateak zabalik

Hastapenetatik, elkarlanean sortu eta garatutako proiektua izan da Tolosaldeko Emakumeen Etxearena, hainbat lantaldek eta emakumek hartu baitute parte prozesu osoan zehar.

Guztira, 600 metro karratu izango ditu eta hainbat espazio: harrera-gunea, egongela, areto nagusia, balio anitzeko gelak,



Belaunaldiartekotasuna, aniztasuna, errespetua eta irisgarritasuna izango dira ANDRAGORAREN printzipioak, eta elkargune dinamikoa, aktiboa, hezitzailea, inklusiboa, laikoa, parte hartzailea, arnas-gunea eta feminista izango da.





## INDARBERRITUTA ETA BERRIKUNTZEKIN ITZULI DIRA AZOKA BEREZIAK TOLOSARA, ELIKER KALITATEZKO ELIKADURAREN ZENTRO BERRIAREN ESKUTIK



Tolosako azoka bereziek bultzada izango dute aurrerantzean abiatu berri den ELIKER, Tolosako Kalitatezko Elikadura Zentroari esker. Izan ere, eskualdeko elikadura katea osatzen duten eragileak estimulatatu eta elkarlana eta sinergiak sustatzeaz gain, Elikarren beste lan-ildo nagusietako bat, hain zuzen, merkatu-ratzeko modu berriak bilatzea da.

Horri lotuta, udazken berezia bizitzen ari da aurten ere Tolosa, urteroko azoka berezien ospakizunekin. Aurtengoan, gainera, azoka berezi bat gehitu zaio, ES-NEKI, Euskal Herriko gazta eta esnekien azoka, alegia, eta hori da, hain zuzen, Elikarren sorrerarekin batera etorri den berrikuntza nagusietako bat.

Dagoeneko ospatu dira Mikologika, Goxua, Esneki azoka berria eta Babarrunaren festa. Esnekiren kasuan, arrakasta izugarria izan du lehen edizioan eta profesionalei zuzendutako kongresuaz gain, azoka berezia eta Euskal Herriko gazta

mota guztien lehiaketa jaso ditu. Guztira 100 gazta eta jogurt aurkeztu ziren lehiaketara eta guztietatik, Asteasuko Otzara Berriaren 'Otzara Goine' pasta bigunak irabazi zuen Euskal Herriko gaztarik onenaren saria.

Goxuan ere hainbat berrikuntza izan dira aurten. Lan lerro ezberdinak dituen ikerketa bat abiatu da, azukrearen kontsumo aldaketei lotuta, gozogintza sektorearen etorkizuna bermatzeko helburuarekin. Lan lerro horiek guztiak eta ikerketaren emaitzak Elikerrekin antolatu duen gozogintza sektoreko profesionalei zuzenduriko topaketan partekatuko dira.

Babarrunaren azoka ere arrakastatsua izan da beste behin eta eragileen elkarlanetik antolatu da. Egitarauari eta egunari indarra emate aldera, egun bakar batean batu dira ekintza guztiak, babarrun ekoizleen txapelketa nagusi izanik, eta abenduaren 16an, Babarrunaren Kofradia sortutako liburua aurkeztuko da.

Las ferias especiales de Tolosa tendrán en adelante un mayor impulso gracias a la puesta en marcha de ELIKER, el Centro de Alimentación de Calidad de Tolosa. Así, a la lista de ferias especiales, este año se suma Esneki, la feria especial de productos lácteos y quesos de Euskal Herria. Hasta el momento ya se han celebrado Mikologika, Goxua, Esneki y la fiesta de la alubia, a cada cual más exitosa.

### Gran éxito de la primera edición de Esneki, la feria especial de productos lácteos y quesos de Euskal Herria



## MARTXAN DAUDEN ERABERRITZE LANAK

### Larramendi eta Belate elkartuko dituen zubia

*El puente que unirá Larramendi y Belate*

Abian dira Larramendi eta Belate auzoak lotuko dituen zubiaren eraikuntza lanak. Joan-etorriak irisgarriagoak, arinagoak eta azkarragoak egitea da helburua eta zubi berria oinezkoentzako eta bizikletentzako izango da.

Larramendiko hirigintza lanetatik erortritako karga urbanistikoetan hitzartutakoari esker eraikiko da zubi berria, uholdegarritasunagatik soilik oinezkoentzat izango dena altueran.



### Amarotzeko Auzo Etxearen ingurua eraberrituta

*Reformado el entorno del Auzo-Etxe de Amaro*

Tolosako Udalak Amarotzeko Auzo Etxearen inguruan eraiki ditu estalki berria, erabilera anitzeko espazio gisa erabiltzeko, eta naturan integratutako jolas-gunea.



### Amaitzean daude zezen plaza eraberritzeko 4. faseko lanak

*A punto de finalizar las obras de la 4ª fase de la reforma de la plaza de toros*

Goiko harmaila eta sarrera nagusiko eskailerak zaharberritu dira, egitura egonkorragoa izan dadin eta etorkizunean 200 erabiltzaile gehiagorentzako lekua bermatzeko. Laster sistema elektrikoa berritzeko lanak abiatuko dira.

### Epe laburrean hasiko dira Usabalgo 3. faseari dagozkion lanak

*A punto de comenzar la 3. fase de la reordenación de Usabal*

Helburua da aire libreko kirol instalazioen eremua berrantolatzea eta kirol instalazio berriak sortzea, egungoen osagarri izango direnak: egungo skate pista zabalduko da, egungo tirolina lekuz aldatuko da, eta bizikletarako pump track-eko pista bat eta bizikletarako trialeko beste pista bat ezarriko dira.





# TRIBUNA

## Alderdien iritzia



### Ospitale publiko berria Tolosan

Aurtengo urterako Jaurilaritzak Tolosalde-rako, Ospitale berrirako Plan Funtzionala egiteko konpromisoa hartu zuen. Jaurilaritzak Plan Funtzionala amaitu berri du eta azterketa tekniko horren eskutik Osasun sailburuak dagoeneko adierazi du ospitaleratze solairua izango duen OSPITALE BERRIA izango dugula eskualderako. Berri pozgarria eta tribuna honetan hitz gutxi hauek merezi dituena.

Legealdi hasieran iragarri genuen ospitale berriaren egitasmoak argia ikusi zezan lan egingo genuela. Hitzaz betetzeaz gain, egindako lanaren emaitza da berau, lan isila eta eraginkorra, erakundeen arteko elkarlana oinarri.

Zalantzan jartzen zutenek hartuko dute beste aitzakiaren bat ONDO egindako lana itsusitzeko baina gure jomuga bakarra HERRIA da, eztabaida antzuek alde batera utzita, eta inork zalantzan jarri nahi bada ere, EAJ-PNVk tinko eusten dio ospitalea eraikitze konpromisoari. Hori da gure hitza, hori da gure konpromisoa.

Gobierno Vasco prevé la construcción de un nuevo hospital con planta de hospitalización en Tolosa. Sin duda una muy buena noticia. Seguiremos trabajando como lo hemos hecho hasta ahora en todos los hitos importantes de nuestro municipio CON COMPROMISO, para que en un futuro próximo Tolosa cuente con un hospital público que de servicio a tolosaldea.



Tolosar gehienok bat gatz Zumarditxia berreskuratu eta berroneratzearen beharraren ideiarekin.

Gure ustez, baina, ez da beharrezkoa espazioa hankaz gora jartzea, zuhaitz guztiak botatzea eta porlanez betetzea, Zumarditxiaren irudia, egoera eta erabilpena hobetzeko. Autoak aparkatzeko irtenbidea eman eta bertatik atera ondoren, tolosarrok gune hori erabiltze soilarekin etorriko dira onura hauek.

Guretzat garrantzitsuena autoak bertatik ateratzea eta espazioa duintzea da. Hau da, egungo izaera mantenduz interbentzio arina egitea: zorua txukundu, belarra landatu, mobiliario urbanoa jarri... Urbanismo taktikoaren ideia erabiltzea proposatzen dugu, hau da, obra handi bat egin aurretik, behin-behineko esku hartzea egin behin betiko proiektua hobetu ahal izateko, beharrezkoa ikusten bada, beti ere.

Geure buruari denbora tarte bat ematea proposatzen dugu, herritarrok espazioa bizi/erabil dezagun (bi, hiru, lau urte...).

Hori egin ondoren, Zumarditxia berrantolatzeo ideia eta proposamenak bizipen errealetatik abiatuta egingo genituzke, eta horrek, gure ustez, prozesua aberastuko luke.

Ezin dugu ahaztu Tolosako toki enblematikoenetako batez ari garela eta datozen 100 urteetarako eraldaketa egingo dugula.

Gobernuak atzera egingo duela espero dugu.



### San Esteban

Tolosak etxebizitza-premia handia du, eta etxebizitza berriak eraikitzeo geratzen zaigun espazio bakarra San Esteban da. Beraz, aterako den proiektua errealista eta arrazoizkoa ez bada, jai daukagu.

San Estebaneko bizilagunek ezin dute jarraitu egungo baldintzak dituen auzoarekin: urte asko abandonatuta, zentrotik oso gertu egon arren. Eta lantegi zahar eta lursail guztien jabeek ezin dute beste 20 urte itxaron beste plan partzialaren erreforma bat egin behar dela esateko.

Gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuekin, Feriale ez da finkatuzat jo behar. Garapen urbanistiko eta estetikoari dagokionez, etorkizuneko San Esteban auzoaren hirigintza-garapena negatiboki erabat baldintzatuko duen eraikina da. Bonbarearentzat beste espazio bat bilatzea ezinbestekoa izango da.

San Esteban berrian, Ferialeko espazioan eta ondoko aparkalekuan, Udalak ekimena har dezake, Udala bera izan daiteke auzoaren erreformaren eragile eta bultzatzaile nagusia, etxebizitza sozialak eta garajeak eraikiz.

San Esteban es el único espacio que nos queda para hacer frente a la escasez de vivienda. Si el nuevo proyecto vuelve a ser inviable, a las nuevas generaciones no les quedará más salida que marcharse de Tolosa.

# AGENDA

Agenda osoa ikusgai: [agenda.tolosa.eus](http://agenda.tolosa.eus)

ABENDUAK 19

Katapultatour Gipuzkoa. Alazne Etxeberria "De esto también se sale"

19:00etan, Kultur Etxean

ABENDUAK 16

Musika Eskolako Gabonetako Kontzertu Solidarioa

18:30ean, Topic-en

ABENDUAK 23

Kutsidazu bidea, Ixabel (musikala)

20:00etan, Leidorren

ABENDUAK 24

Zezen Plazatik Mari Domingi eta Olentzeroren etorrera. 19:00etan

ABENDUAK 28

Alos Quartet eta gonbidatuak

20:00etan, Leidorren

URTARRILAK 03

Tutik Clowns

17:00etan, Leidorren

ABENDUAK 30

Euskal Herriko gazte orkestra. Ego Fundazioa

19:00etan, Leidorren

URTARRILAK 05

Zezen plazatik Erregeen Kabalgata

19:00etan

URTARRILAK 04

Elvis Gospel

19:00etan, Leidorren

Kontsultatu Alekaren edukia zeinu hizkuntzan:

Consulta el contenido de Aleka en lenguaje de signos:

HEMEN!



# ETXEBIZITZA

# TASATUAK

Etxebizitza tasatuetan izena emateko epea abenduaren 12tik aurrera zabalik

- San Kosme eta San Damian: 20 etxebizitza.
- Iurramendi: 40 etxebizitza.



Eskaerak webgunean telematikoki / UDATEn presentzialki



**INFORMAZIO GEHIAGO**  
**MÁS INFORMACIÓN**

[www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)  
UDATE  
Plaza Zaharra 6, behea



TOLOSA